

IZARPENSION

**BORONDATEZKO
GIZARTE
AURREIKUSPENEKO
ERAKUNDEAREN**

ESTATUTUAK
2017ko apirila

AURKIBIDEA

Orrialdea

I. titulua. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Eraketa eta izena	1
2. artikulua. Helburua	1
3. artikulua. Helbide soziala, lurralde-eremua eta iraupena	2
4. artikulua. Barne hartzen dituen aurreikuspen-planak	2

II. titulua. BAZKIDEAK

5. artikulua. Bazkide motak	3
6. artikulua. Bazkide sustatzailearen eskubideak	4
7. artikulua. Bazkide sustatzailearen betebeharrak	4
8. artikulua. Gainerako bazkideen eskubide arruntak	5
9. artikulua. Gainerako bazkideen betebeharrak	5
10. artikulua. Bazkide babesleen eskubide bereziak	6
11. artikulua. Osoko eta ohiko bazkideen eskubide bereziak	6
12. artikulua. Onuradunen eskubideak eta betebeharrak	7
13. artikulua. Erakundekoa izatea	7

III. titulua. EKONOMIA ARAUBIDEA

14. artikulua. Borondatezko Gizarte Aurreikuspenaren Enplegu modalitatea	7
15. artikulua. Erakundearen diru sarrerak, fondoak eta finantza-bermeak	8
16. artikulua. Erakundearen administrazio-gastuak	8
17. artikulua. Erakundearen ondarea	9
18. artikulua. Erakundearen ondarea inbertitzea	9
19. artikulua. Onuradunei zuzendutako prestazioak	10

AURKIBIDEA

Orrialdea

IV. titulua. ERAKUNDEAREN GOBERNU ORGANOAK

20. artikulua. Erakundearen kide anitzeko gobernu-organoak	10
21. artikulua. Batzar Nagusiaren osaera	11
22. artikulua. Batzar Nagusietan parte hartu, botoa eman eta ordezkatzeko eskubidea	11
23. artikulua. Batzar Nagusi motak eta deialdia	11
24. artikulua. Batzar Nagusiak eskuordetu ezinezko eskumenak	12
25. artikulua. Gobernu Batzordeko kide izateko baldintzak.....	12
26. artikulua. Gobernu Batzordearen osaera	13
27. artikulua. Gobernu Batzordearen deialdia eta bilerak	13
28. artikulua. Gobernu Batzordearen eskumenak eta ahalmenak	14
29. artikulua. Gobernu Batzordeko kideen erantzukizuna	15
30. artikulua. Lehendakariaren ahalmenak eta zereginak	15
31. artikulua. Lehendakariordearen ahalmenak eta zereginak	15
32. artikulua. Idazkariaren ahalmenak eta zereginak	16
33. artikulua. Gobernu Batzordeko kideen zereginak eta ahalmenak Gobernua	16
34. artikulua. Estatutu Sozialak eta Gizarte Aurreikuspeneko Planaren Araudia aldatzeko prozedura	16
35. artikulua. Gatazkak ebazteko prozedura.....	16
36. artikulua. Erabakiak aurkaratzeko prozedura	17

V. titulua. DIZIPLINA ARAUBIDEA

37. artikulua. Arau-haustek	18
38. artikulua. Zehapenak eta prozedura	19
39. artikulua. Gobernu Batzordeak ezarritako zehapenen aurkako errekurtsioak.....	20

VI. titulua. DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA

40. artikulua. Erakundea desegin eta likidatzea.....	20
--	----

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. ERAKETA ETA IZENA

IZARPENSION BGAE 1990ean sortu zen, borondatez eta irabazi-asmorik gabe, eta honako Estatutu hauen pean eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeei buruzko unean-uneko araudiaren pean aritzen da.

Erakundea IPAR KUTXA RURAL S.COOP. DE CRÉDITOren ekimenez sortu zen (helbidea: Areatzako pasealekua 4, Bilbo). 2012ko azaroaren 1ean bat egin ondoren, bat-egitearen ondoriozko kooperatiba berria CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO da (IFZ: 75076935; helbidea: JM Arizmendiarrjeta pasealekua zk.g., Arrasate). Estatutu hauek onartzeko unean, 2016ko apirilean, mutua-fondoa 50.000 eurokoa zen.

Erakundearen izena “IZARPENSION, enpleguko BGAE” da (aurrerantzean, ‘Erakundea’).

2. artikulua. HELBURUA

Honako hauek dira Erakundearen helburuak:

- a) Oraingo eta etorkizuneko ohiko bazkide eta onuradunen borondatezko gizarte-aurreikuspeneko aurrekia sustatzea.
- b) Erretiroa, ezintasun iraunkorra edo lanerako baliaezintasuna, iraupen luzeko langabezia, gaixotasun larria eta heriotza estaltzea, alarguntasuna, zurtasuna eta jaraunsleen aldeko eskubideak barne hartuta, bazkideen eta onuradunen eskubideak bermatuz eta babestuz.
- c) Beste arrisku batzuk estaltzea, baldin eta, une bakoitzean indarrean dagoen legediak onarturik, Gobernu Batzordeak Erakundearen helburuen artean kokatzea erabakitzen badu. Gobernu Batzordeari egokitzat jotzen dituen erabakiak hartzeko ahalmen nahikoa eta zabala aitortzen zaio, betiere indarreko legeriarekin bat.
- d) Bazkideen ekarpenak eta kuotak jasotzea, horiekin eta sarrerokin egiten diren inbertsioen errendimenduekin beharrezko kapitalak eratzeko, onuradunei zor zaizkien prestazioak ordaindu ahal izateko.
- e) Bere kabuz edo hirugarrenen parte-hartzearen bidez, aurreko ataletan ezarri diren helburuak lortzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren egintza eta kontratu guztiak egitea, bai eta, oro har, atal horiekin zuzeneko edo zeharkako lotura duen beste edozein ere.

3. artikulua.**HELBIDE SOZIALA, LURRALDE-EREMUA ETA IRAUPENA**

Erakundeak helbide hau izango du: Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua, zk. g., Arrasate (Gipuzkoa). Gobernu Batzordeak egoitza aldatzea erabaki dezake, betiere udalerri beraren barruan.

Euskal Autonomia Erkidegoa izango da haren jarduera-esparrua.

Erakundeak iraupen mugagabea du, eta Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Erregistroan izena ematen duen unetik aurrera ekingo dio jardunari.

Haren ekitaldia urte naturalarekin bat etorriko da.

4. artikulua.**BARNE HARTZEN DITUEN AURREIKUSPEN-PLANAK**

Erakundeak enpleguko hainbat aurreikuspen-plan jarri ahal izango ditu abian. Prestazioen ezaugarriek, inbertsio-politikek eta/edo bazkide babeslearen irudiak bereiziko dute horietako bakoitza.

Nortasun juridiko propiorik gabeko enpleguko gizarte-aurreikuspeneko planak honako hauek dira: Estatutu hauen 2 b) artikuluan jasotako kontingentzietarako ekarpen erregularren eta prestazioen araubidea antolatu eta erregulatzen duten kontratu, elkarte, eraketa-ekintza eta araudi motako akordioak. Aurreikuspen-planak prestazio-araudien bidez formalizatzen dira eta, horiek zehazteko, banakako kapitalizazioko sistema finantzario eta aktuarialak ezarriko dira.

Erakundearen Gobernu Batzordeak gizarte-aurreikuspeneko planen araudiak aldatzeko eskumena du.

II. TITULUA. BAZKIDEAK

5. artikulua. BAZKIDE MOTAK

Pertsona fisikoak nahiz juridikoak izan ahal dira bazkide. Honako bazkide mota hauek egongo dira: bazkide sustatzailea, bazkide babesleak eta osoko edo ohiko bazkideak.

Bazkide sustatzailea hauxe da: eratzeko borondatearen eta hasierako ekarpenaren bidez Erakundea sortzen eta eratzen parte hartu duena, erakundetik mozkin zuzenik jaso gabe. Erakundearen gobernu-organoetan parte hartzen du, Estatutu hauetan zehaztutakoaren arabera.

Estatutu Sozial hauen ondorioetarako, CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO da bazkide sustatzaile bakarra.

Bazkide babesleak, berriz, beren jarduera eta ekarpenen bidez Erakundea edo haren aurreikuspen-planetako bat garatzen eta mantentzen parte hartzen dutenak dira. Ez dute onura zuzenik jasotzen, baina gobernu-organoetan parte hartzen dute, Estatutuetan ezarrita dagoen moduan.

Azkenik, osoko edo ohiko bazkideak eurentzat edo euren onuradunentzat prestazioren bat jaso dezaketen pertsona fisikoak dira. Osoko edo ohiko bazkide horiek indibidualizatuta egon beharko dute, atxikita dauden enplegu-aurreikuspeneko planaren arabera.

Ohiko bazkide izateko honako modalitate hauek daude:

- a) Bazkide aktiboak: eurek zuzenean edo hirugarrenek euren izenean egindako ekarpen ekonomikoen ondorioz, eurentzat edo euren onuradunentzat prestazioren bat jasotzeko eskubidea duten pertsonak.
- b) Bazkide pasiboak: bazkide aktibo izan ondoren, prestazioaren titular zuzen bihurtu direnak, kontingentzia gertatu ondoren babestutako subjektuak direlako.
- c) Etendura egoeran dauden bazkideak: bazkide aktibo izan ondoren, gaur egun ekarpenik egiten ez dutenak, ez beraiek zuzenean, ez hirugarrenek beraien izenean.

Ebazpen judizial irmoa duten ezkontza-deusezetasuna, banaketa edota dibortzioa gertatu direnean, eta ebazpen horren arabera aurreikuspen-planaren eskubide ekonomikoak ezkontideen arabera banatu behar badira, Erakundeak biei esleituko dizkie eskubideak, epaian zehaztutako formularen arabera. Esleipen hori egiten den unetik aurrera, bazkide bakoitzak era independentean jarraituko du gizarte-aurreikuspeneko planean parte hartzen, eta enplegatua ez den ezkontidea etendura egoeran dagoen bazkide bihurtuko da.

Onuradunak izango dira, berriz, bazkide eragilearekin duten harremana dela eta, kontingentzia gertatu ondoren prestazioaren titular bihurtzen direnak.

Bazkideek askatasun osoz izendatuko dituzte onuradunak. Inor izendatu ez badute, Estatutu hauetako 18. artikuluan adierazten den hurrenkera ezarriko da eta, era osagarrian, bazkide horri oinordetza-zuzenbidearen arabera ezarri beharreko araubidea.

Bazkide bakarra aurreikuspen-plan bati baino gehiagori atxikita egon daiteke.

Bazkide izateko, Estatutu hauetan finkatzen diren mugak baino ez dira errespetatu beharko. Nahitaezko baldintza izango da, ordea, Erakundeak aurreikuspen-plan bakoitzerako ezartzen dituen ekonomiaren eta finantzen alorreko baldintzak onartzea.

6. artikulua. BAZKIDE SUSTATZAILEAREN ESKUBIDEAK

Hona bazkide sustatzailearen eskubideak:

- a) Erakundearen gobernu-organoetan parte hartzea.
- b) Gobernu Batzordeko eskubide osoko berezko kidea izatea.
- c) Batzar Nagusiari Gobernu Batzordean bera ordezkatzeko duten kideak izendatzeko proposamena egitea.
- d) Bazkide berri bat sartzeari uko egiteko ahalmena, aurretiaz Gobernu Batzordearen aurrean horrela jokatzeko aparteko kausak justifikatuta.
- e) Erakundearen helburuaosatzen duten jarduerak eta, bereziki, gizarte-aurreikuspeneko aurrezkia sustatzearen ingurukoak, garatzeko neurriak proposatzea.
- f) Erakundearen eta bertan txertatutako gizarte-aurreikuspeneko plan guztien jarduerari, funtzionamenduari eta finantza-egoerari buruzko informazioa jasotzea, puntualki eta berak eskatutako bezainbesteko zehaztasunez.
- g) Erakundearen jabegoko tituluen Erakunde Gordailuzain nor izendatu proposatzea.
- h) Erakundeko gobernu-organoek hartutako akordio eta erabakien aurka egoki iruditzen zaizkion errekurtsoak eta erreklamazioak aurkeztea.
- i) Lege-xedapenek eta estatutu hauek aitortzen dizkioten gainerako eskubideak.

7. artikulua. BAZKIDE SUSTATZAILEAREN BETEBEHARRAK

Honako hauek dira bazkide sustatzailearen betebeharrak:

- a) Erakundearen inbertsioak eta ondarea zaindu eta kontrolatzea, prestazio ekonomikoen azken hartzaileak diren ohiko bazkideen interesa eta gizarte-onura bermatze aldera.

- b) Legez exijitutako ekarpenak egitea.

8. artikulua. GAINERAKO BAZKIDEEN ESKUBIDEAK

Bazkide babesleek, babesleek nahiz osoko edo ohikoek, eskubide hauek izango dituzte:

- a) Erakundearen gobernu-organoetan parte hartzea, beren kabuz edo ordezkarien bidez, Estatutu hauetan aurreikusitakoaren arabera.
- b) Erakundeko gobernu-organoetako partaideak aukeratzea eta aukeratuak izatea.
- c) Unean uneko indarreko araudiak zehaztutako informazio guztia edukitzea. Zehatzago, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen jardura arautzen duen maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren 4. artikuluan edo hura ordeztzen duen legerian zehaztutako informazioa jasotzea.
- d) Gobernu-organoek hartutako akordio eta erabakien aurka egoki iruditzen zaizkion errekursoak eta erreklamazioak aurkeztea.
- e) Lege-arauek eta estatutu hauek aitortzen dizkioten gainerako eskubideak.

Egoera berberetan, bazkide guztiek eskubide berak izango dituzte, atxikita dauden aurreikuspen-planaren edo -planen arabera.

9. artikulua. GAINERAKO BAZKIDEEN BETEBEHARRAK

Honako hauek dira osoko eta ohiko bazkideen eta bazkide babesleen betebeharrak:

- a) Azterlan aktuarialak prestatzeko beharrezko datuak ematea.
- b) Aurreko atalean aipatu diren datuak eguneratuta izateko beharrezko informazioa behar adinako aurrerapenez ematea.
- c) Konprometitutako kontribuzio nahiz ekarpenak ordaintzea.
- d) Gobernu-organoek baliotasunez hartutako erabakiak betetzea.
- e) Helbidea aldatuz gero, Erakundeari horren berri ematea.
- f) Lege- eta estatutu-xedapenek ezarritako gainerako betebeharrak.

Erakundearen aurrean, bazkide babeslea izango da artikulua honetako a, b, c eta e ataletan azaldu diren betebeharrak betearaztearen arduraduna.

10. artikulua. BAZKIDE BABESLEEN ESKUBIDE BEREZIAK

Bazkide babesleek eskubide hauek izango dituzte:

- a) Erakundearen eta bertan txertatutako gizarte-aurreikuspeneko plan guztien jarduerari, funtzionamenduari eta finantza-egoerari buruzko informazioa jasotzea, puntualki eta berak eskatutako bezainbesteko zehaztasunez.
- b) Enpleguko aurreikuspen-planari atxikitako bazkideak eta aktiboak intsuldatzea, a Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko 2012ko otsailaren 23ko 5/2012 Legearen 45. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

11. artikulua. OSOKO ETA OHIKO BAZKIDEEN ESKUBIDE BEREZIAK

Honako hauek dira osoko eta ohiko bazkideen eskubideak:

- a) Ohiko bazkideari dagokion kuota-zatia eskuratzea, ekarpen, errendimendu eta gastuen arabera neurtuta, ezarri beharreko araudiak xedatutakoaren arabera.
- b) Prestazioak Estatutuetan agindu bezala jasotzea.
- c) Bazkide eten gisa bazkide izaten jarraitzea, nahiz eta ekarpen gehiago egiteko konpromisoa desagertu. Kasu horietan, aurrez egindako ekarpenei eta horien ondorioz metatutako emaitzei dagozkien prestazioak jasotzeko eskubidea izango du.
- d) Eskubide ekonomikoak mugitzeko, ohiko bazkide aktiboak edo etendura egoeran dagoen bazkideak bazkide babeslearekin duen lan-harremanak amaituta egon behar du. Eskubideak osotasunean mugituko dira beste enplegu-plan batera, eta halakorik ez badago, beste edozein aurreikuspen-planetara, betiere Estatutuetan prestazioak kobratzeko moduari buruz finkatuta dauden baldintzak eta ezaugarriak betetzen baditu. Bazkideak sei hilabeteko epean erabili ahal izango du bere eskubide ekonomikoak mugitzeko eskubidea, lan-harremana amaitzen denetik zenbatzen hasita. Behin mobilizazioa eskatu ondoren, bi hilabete igaro aurretik gauzatu beharko da. Bazkide pasiboek eta onuradunek libreki mugitu ahalko dituzte beren eskubide ekonomikoak beste BGAE batera.

Mobilizazioa ezin bada gauzatu aurreko paragrafoan adierazi bezala, bazkideak honako aukera hauek izango ditu:

- a. Erakundeko ohiko bazkide izaten eta ekarpenak bere kabuz egiten jarraitu eta, bere garaian, dagozkion prestazioak jasotzea.
- b. Etendura egoeran dagoen bazkide izatea, egindako ekarpenen araberrako prestazioak jasotzeko eskubideari eutsita, eta babestutako kontingentzia bat gertatzen bada, bere eskubide ekonomikoen bidezko tratamendua izatea.

Eskubide ekonomikoak mugitzeak ez du gasturik sortuko ohiko bazkidearentzat edo onuradunarentzat, eta eskubide horiek ez dira murriztuko.

12. artikulua. ONURADUNEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK
--

8 a) ,c), d), eta e) eta 11 b) eta d) artikuluetan eskubidetzat jasota daudenak.

9 a), b), d), e) eta f) artikuluetan betebehartzat jasota daudenak.

13. artikulua. ERAKUNDEKOA IZATEA
--

Bazkide sustatzailea bazkide bihurtzen da, Erakundeak borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen alorrean eskumena duen Eusko Jurlaritzako Sailaren Borondatezko Gizarte Aurreikuspenen Erregistroan izena ematen duen unean bertan.

Bazkide babesleak Erakundeari atxikitze kontratua formalizatzean bilakatuko dira bazkide; kontratu horretan adieraziko da bazkidea zer aurreikuspen-plani atxiki zaion.

Osoko edo ohiko bazkideei dagokienez, inolako bereizketarik gabe eta egoera beretan gainerako bazkideen eskubide berberekin, Erakundeari atxikitze kontratua formalizatzean egingo dira bazkide. Kontratu horretan adieraziko dira bazkidea zer aurreikuspen-plani atxiki zaion eta hasierako ekarpena ordaindu duela.

Bazkide babesleek nahi dutenean hartu ahal izango dute baja. Mutua-fondora egindako ekarpenak itzultzeko eskatu ahal izango dute, Erakundeak kaudimena badu eta Gobernu Batzordeak oniritzia ematen badu.

Bazkide babesleek ez dutenean kontribuzioak edo ekarpenak ordaintzeko betebeharra betetzen, Gobernu Batzordeak, egoera zehatz-mehatz aztertu ondoren, haiek Erakundetik kaleratzea erabaki ahal izango du. Bazkide-izaera horrela galtzen duen bazkideak borondatezko baja hartzen duenaren eskubide berak izango ditu, eta aurreko paragrafoan borondatezko bazarako ezarri diren baldintzak aplikatuko zaizkio.

III. TITULUA. EKONOMIA ARAUBIDEA

14. artikulua. BORONDATEZKO GIZARTE AURREIKUSPENAREN ENPLEGU MODALITATEA

Erakundeak enpleguko borondatezko gizarte-aurreikuspenaren modalitatea erabiliko du eta, horrenbestez, Erakundeari atxikitzeke aurreikuspen-planak, nahitaez, enpleguko gizarte-aurreikuspeneko planak izango dira, 2012ko otsailaren 23ko 5/2012 Legearen 44. artikulua agindutako baldintzekin bat.

15. artikulua.	ERAKUNDEAREN	DIRU-SARRERAK,	FONDOAK	ETA
<u>FINANTZA-BERMEAK</u>				

Hona hemen Erakundearen ekonomia-baliabideen iturriak:

- a) Bazkide babesleek eta osoko edo ohiko bazkideek aldian behin egin behar dituzten kontribuzio eta ekarpenak.
- b) Inbertitutako baliabideen kudeaketaren ondorioz lortu diren errentak, dibidenduak, interesak edo beste edozein errendimendu garbi (dagokion aurreikuspen-planaren araudian zehaztutako administrazio-gastuen ehunekoa kendu ondoren).
- c) Bestelako sarrerak.

Sarrera horiek guztiak kasuan kasuko aurreikuspen-planari egotziko zaizkio. atxikitako partaideen eta ondarearen arabera.

Erakundeak honako fondo eta finantza-berme hauek eratu eta mantendu behar ditu, nahitaez, irizpide ekonomiko, finantzario eta aktuariaren arabera eta kaudimenaren eta finantza-orekaren printzipioen baitan:

- a) Mutua-fondoa, bazkideen ekarpenen eta ekitaldi sozialen soberakinen bidez iraunkorki osatuta.
- b) Zuzkidura teknikoak, Estatutu hauen 2. artikuluan zehaztutako kontingentziak estaltzeko jardunak dakartzan betebeharrak islatuko dituzten zorrez osatuta.
- c) Segurtasun-marjina, zuzkidura teknikoez harago doazen eta aurreikus daitezkeen konpromiso guztietatik libre dauden aktiboez osatuta, baldin eta araudiak halaxe agintzen badu.
- d) Araudiak agin ditzakeen beste fondo batzuk.

16. artikulua.	ERAKUNDEAREN ADMINISTRAZIO-GASTUAK
-----------------------	---

Administrazio-gastutzat joko dira pertsonal-gastuak, amortizazioetarako zuzkidurak eta kanpo zerbitzuengatikoko gastuak.

Administrazio-gastuen gehieneko ehunekoak eta gainerako ezaugarriak kuota, derrama edota zuzkidura teknikoan gainean finkatuko dira.

Bazkideek gobernu-organoetan zuzendaritza-lanak egin behar dituztenean, borondatez egingo dute eta inolako ordainsaririk jaso gabe, baldin eta Erakundeari zerbitzu tekniko edo profesional iraunkorren bat eman behar ez badiote.

Erakundearen aurreikuspen-planetan, administrazio-gastuak ezin izango dira indarreko araudiak finkatzen dituenak baino handiagoak izan.

17. artikulua. ERAKUNDEAREN ONDAREA

Prestazioak betetzeko Erakundeak duen ondarea zehazteko, aktibo guztien baturatik honako hauek kendu behar dira: kontu hartzekodunak, mutua-fondoa eta araudiak exijitzen dituen gainerako fondo osagarriak, indarreko lege- eta kontabilitate araudiaren arabera baloratuta edota, bestela, zuhurtzia handieneko irizpidearen arabera baloratuta.

Erakundearen ondarea gizarte-aurreikuspeneko plan adina zatitan banatuta egongo da. Aurreikuspen-plan horietako bakoitzak Erakundearen ondare osotik zer zati dagokion zehaztuta edukiko du kontabilitatean.

Aurreikuspen-planari atxikitako ondareztat joko da ekarpen guztien kapitalizazio-fondoa, behin prestazioak, mobilizazioak edo/eta erreskateak kenduta, kalkuluak aipagai duen aldian egindakoak izan ezik, eta inbertitutako baliabideek sortutako errendimenduak eta kalkulua egin den eguneko merkatu-prezioan baloratutako aktiboen plusbalioak edo minusbalioak gehituta. Kalkulu hori ez balego, berriz, horren balio efektiboa, zuhurtzia handieneko irizpideekin bat eta oro har onartutako balorazio-metodoak erabilia, eta aurreikuspen-plan bakoitzaren araudian zehaztutako administrazio-gastuak kenduta. Atxikitako ondarea zati alikuotetan banatuko da.

Ohiko bazkide eta onuradun bakoitzaren eskubide ekonomikoa zehazteko, zati alikuota bakoitzaren balioa bazkide edo onuradun horri egotzitako zati alikuoten kopuruarekin biderkatuko da.

Partaidetzak edo dagozkien egiaztagiria ezin dira transmititu edo pignoratu.

Era berean, Erakundearen aktiboak ezin dira titulu negoziagarrietan txertatu eta, halaber, ezin izango dira pignoratu edo hipotekatu.

Aldian behin, Erakundeak egoera-orriak igorriko dizkie aurreikuspen-planetara atxikitakoei. Besteak beste, epealdian egindako ekarpenen, intsuldaketen eta prestazio partzialen datuak, egun horretan dituzten eskubide ekonomikoen balioa eta unean uneko indarreko araudiak agintzen duen informazioa agertu beharko dira egoera-orri horietan.

18. artikulua. ERAKUNDEAREN ONDAREA INBERTITZEA

Erakundeko fondoak bere izaerarako egokiak diren irizpide hauen arabera inbertituko dira: segurtasuna, likidezia, errentagarritasuna, dibertsifikazioa, sakabanaketa, kongruentzia monetarioa eta helburu sozialerako epe egokiak, betiere indarreko arautegia kontuan hartuta.

Erakundearen ondarea ohiko bazkideen eta onuradunen mesedetan inbertituko da beti. Interes-gatazkarik agertuz gero, Erakundeak kontu egingo du bazkideen interesen defentsan inberti dadin.

Erakundeak inbertsioak gauzatzen diren ondasun eta eskubideen titulartasuna eta erabateko erabilgarritasuna izango ditu.

19. artikulua.	OHIKO BAZKIDE ETA ONURADUNEI ZUZENDUTAKO PRESTAZIOAK
-----------------------	---

Estatutu hauen 2. artikuluan jasotako kontingentziei dagozkien prestazioak pertsonalak eta transferiezinak dira, eta Estatutu hauekin bat duten helburuari atxikita daude. Gainera, horien gainean kenkariak, atxikipenak, lagapenak, konpentsazioak nahiz enbargoak egiten direnean, indarreko araudiaren menpe egingo dira.

Horretarako, bazkideak prestazioen onuradunak izendatu ditzake heriotzaren kasurako; onuradun zehatzik adierazi ezean, hauek izango dira ordena honetan: bizirik dagoen ezkontidea, bizirik dauden seme-alabak eta bizirik dauden gurasoak, eta, horiek guztiak ezean, legezko oinordekoak.

Prestazioak kapital gisa, finantza-errenta gisa edo modu mistoan jaso daitezke, indarreko araudian eta Estatutu hauetan xedatutakoaren arabera.

IV. TITULUA. ERAKUNDEAREN GOBERNU ORGANOAK

20. artikulua.	ERAKUNDEAREN KIDE ANITZEKO GOBERNU-ORGANOAK
-----------------------	--

Batzar Nagusiak eta Gobernu Batzordeak gobernatuko dute, oro har, Erakundea.

Batzar Nagusia da Erakundearen borondate soziala adierazteko organo gorena.

Gobernu Batzordeari dagokio Erakundea administratu, zuzendu eta ordezkatzea, eta berak erabiliko ditu legez edo Estatutu Sozialen arabera Batzar Nagusiarentzat gordeta ez dauden ahalmen guztiak.

Gobernu-organoetako kideek ordezkariak izendatu ditzakete, betiere pertsona fisikoak.

21. artikulua.	BATZAR NAGUSIAREN OSAERA
-----------------------	---------------------------------

Batzar Nagusia honako hauek osatuko dute: Gobernu Batzordeko kide diren bazkide sustatzailearen ordezkariak (edo bazkide sustatzaileak izendatzen dituen unean uneko ordezkariak) eta osoko edo ohiko bazkideak. Horrela, interes guztiek presentzia izango dutela bermatuko da

22. artikulua. BATZAR NAGUSIETAN PARTE HARTU, BOTOA EMAN ETA ORDEZKATZEKO ESKUBIDEA
--

Erakundeko bazkide guztiak joan ahal izango dira Batzar Nagusira.

Batzarrerako deia egiten den egunean bazkide direla egiaztatzen dutenek izango dute boto-eskubidea.

Ordezkaritza bazkide sustatzailearen edo beste edozein ohiko bazkideren edo bazkide babesleren esku uzteko aukera izango dute bazkideak, Erakundeari idatziz jakinarazten badiote. Idazkian, Batzar hori zer egunetan izango den zehaztu beharko da.

23. artikulua.	BATZAR NAGUSI MOTAK ETA DEIALDIA
-----------------------	---

Batzar Nagusiak ohikoak edo apartekoak izan daitezke. Ohiko Batzar Nagusiaren helburua zera da: erakundearen kudeaketa aztertzea eta, hala badagokio, kudeaketa-txostena eta urteko kontuak onartzea. Era berean, beste edozein gai ere sar daiteke gai-zerrendan. Gainerako batzar guztiak apartekoak izango dira.

Gobernu Batzordeak dei dezake Batzar Nagusia, kide guztiei jakinarazpen pertsonala igorrita.

Batzar Nagusia egin baino hamar egun balioudun lehenago egin behar da deialdia, gutxienez, eta hogeita hamar egutegi-egun lehenago, gehienez.

Ohiko Batzar Nagusia urtean behin deitu eta egingo da, Erakundeak egoitza duen herrian, ekitaldi bakoitza amaitu ondorengo lau hiletan. Batzar Nagusiko boto guztien ehuneko hamar gutxienez ordezkatzeko duten kideak gai-zerrendan punturen bat gehitzeko eskubidea dute.

Aparteko Batzar Nagusia Gobernu Batzordeak deituko du, bere borondatez edota bazkideen % 20k, gutxienez, eskatuta.

Iragarkian edo jakinarazpenean, lehen deialdiaren eta bigarrenaren datak, orduak eta tokia jasoko dira, bai eta gai-zerrenda ere.

Gobernu Batzordeko lehendakariak zuzenduko du Batzar Nagusia, edota, bera ez badago, lehendakariordeak edota Batzarrak berak aukeratutako bazkideak edo ordezkariak. Gobernu Batzordeko idazkariaren laguntza jasoko du, eta bera ez badago, haren ordezkariarena edo Batzar Nagusiak aukeratutakoarena.

Unean-unean indarrean dagoen legediak zehaztuko ditu Batzar Nagusia baliotasunez osatzeko beharrezko quoruma eta erabakiak hartzeko beharrezko gehiengoak.

Akta-liburua behar bezalako arretaz zainduko da, eta Batzar Nagusian hartutako erabakiak jasoko dira bertan. Baliotasunez hartutako erabakiak bazkide guztiek bete beharko dituzte.

24. artikulua.

BATZAR NAGUSIAK ESKUORDETU EZINEZKO ESKUMENAK

Batzar Nagusiak izango du honako gai hauei buruz erabakitzeko eskumena:

- a) Estatutuak onartu eta aldatzea.
- b) Gobernu Batzordeko kideak aukeratu, izendatu eta kargugabetzea.
- c) Hala badagokio, Gobernu Batzordearen kudeaketa, kudeaketa-txostena eta urteko kontuak onartzea.
- d) Kontu-ikuskaria edo kanpoko ikuskaritza-enpresa aukeratzea.
- e) Hala badagokio, Erakundean ezarritako barne-kontrolako mekanismoen egokitasuna baloratzen duen kanpoko ikuskaritza-txostena onartzea.
- f) Erakundearen bat-egitea, zatikatzea, federatzea edo desegitea.
- g) Horretarako ahalmena duten organoek aurkezten dizkioten gai guztiak, baldin eta Erakundearentzat interesgarriak badira eta gai-zerrendan agertzen badira.

25. artikulua.

GOBERNU BATZORDEKO KIDE IZATEKO BALDINTZAK

Gobernu Batzordeko kide izateko beharrezkoa izango da:

- a) Erabateko gaitasun juridikoa izatea, bai eta jardutekoa ere.
- a) Estatutu hauetan deskribatutako eran aukeratzea edo izendatzea.
- b) Dagokionean, ordaindu beharreko kontribuzio eta ekarpenak ordainduta izatea.

- c) Indarreko araudiak ezartzen dituen trebakuntza- eta prestakuntza-baldintzak betetzea.

26. artikulua.	GOBERNU BATZORDEAREN OSAERA
-----------------------	------------------------------------

Gobernu Batzordean hauek egongo dira ordezkatura: bazkide sustatzailea, bazkide babesleak eta osoko edo ohiko bazkideak.

Sei kidek osatuko dute Gobernu Batzordea; horietako hiru bazkide sustatzaileak izendatuko ditu, eta gainerako hirurak ohiko bazkideek.

Lehendakaria bazkide sustatzaileak izendatutako lau kideetako bat izango da, eta kalitateko botoa izango du Gobernu Batzordean.

Batzar Nagusiak berretsiko ditu bazkide sustatzaileak Gobernu Batzordeko kide izateko proposatu dituen kideak eta, horietaz gain, ohiko bazkideak eta bazkide babesleak ordezkaturako dituzten kideak ere izendatuko ditu, Batzordeak proposatutako pertsonen artean.

Gobernu Batzordeko kideen izendapena edo hautapena 4 urterako izango da. Kargudunak behin eta berriro aukeratu ahal izango dira, inolako mugarik gabe.

Gobernu Batzordeak hasierako eraketaren eta berriztapen bakoitzaren ondoren egiten duen bileran izendatuko ditu, bere kideen artean, lehendakaria, lehendakariordea eta idazkaria.

27. artikulua.	GOBERNU BATZORDEAREN DEIALDIA ETA BILERAK
-----------------------	--

Gobernu Batzordea bere helbidean edo aurreko bileran zehaztutako lekuan bilduko da, lehendakariak deitzen duenean. Edonola ere, gutxienez urtean behin elkartu beharko da, adierazten den datan.

Lehendakariak Gobernu Batzordearen aparteko bilera deituko du, Batzordeko hiru kidek edo gehiagok hala eskatzen badute. Deialdian, bileraren data, ordua eta tokia jasoko dira, bai eta gai-zerrenda ere.

Deialdiak bileraren data baino 5 egun lehenago egin behar dira, gutxienez.

Kideen erdia gehi bat bertaratzen direnean eratuko da baliotasunez Batzordea, eta erabakiak hartzeko bertaratuen gehiengo soilak behar izango da. Lehendakariak izango du berdinketa hausteko lehentasun-botoa.

28. artikulua.	GOBERNU BATZORDEAREN ESKUMENAK ETA AHALMENAK
-----------------------	---

Legez edo Estatutu hauen arabera Batzar Nagusiarentzat gordeta ez dauden ahalmen guztiak izango ditu Gobernu Batzordeak. Honako hauek aipa daitezke, besteak beste:

- a) Erakundearen zuzeneko eta berehalako gobernuaz eta ordezkaritzaz arduratzea.
- b) Ohiko eta Aparteko Batzar Nagusiak deitzea.
- c) Estatutuetako xedapenak eta Batzar Nagusiak eta Batzordeak berak baliotasunez hartutako erabakiak betetzea eta betearaztea.
- d) Urteko kontuak egin eta Batzar Nagusiaren aurrean aurkeztea, bigarren horrek onar ditzan.
- f) Hala badagokio, hirugarrenekin kontratuak sinatzea, Erakundea kudeatu, aholkatu eta administratzeko asmoarekin nahiz Erakundearen garapen ekonomikorako beharrezkoak diren bestelako ekintzak egiteko asmoarekin, eta betiere jardun hori ikuskatuz eta kontrolatuz.
- g) Erakundearen inbertsio-politika onestea, Inbertsio Printzipioen Aitorpen idatziaren bidez. Aitorpen hori unean uneko indarreko araudiaren arabera aztertu eta aldatu ahal izango da.
- h) Erakundea administratu eta kudeatzeaz arduratzen diren erakundeek gorabeheraren bat eraginez gero, zuzenbidez dagozkien erantzukizunak eskatzea.
- i) Prestazioak kobratzeko eskubidea aitortzea, ahalmen hori eskuordetzeko aukerari kalterik egin gabe.
- j) Erakundearen kaudimena eta finantza-oreka zaintzea.
- k) Fondoak zuhurtziaz, profesionaltasunez eta arduraz inbertitzea.
- l) Aitortutako prestazioak nahiz sortzen ari direnak egoki estaliko direla aktiboki kontrolatzea.
- m) Gizarte-aurreikuspeneko planen bat-egitea onartzea eta prestazioen araudiak nahiz aldaketak baliozkotu eta berrestea.
- n) Aurkezten diren errekurso eta erreklamazioak ebaztea, Estatutuekin bat.
- o) Batzordeko kideak egoki prestatuta daudela ziurtatzea.
- p) Bazkideen interesen alde jardutea, zuhurtziaz, kontzienteki eta arduraz.

- q) Batzar Nagusiari honako gai hauek proposatzea: estatutuok aldatzea; Erakundeak beste erakunde batzuekin bat egitea, federatzea edo elkartzea eta Erakundea desagitea.
- r) Estatutu hauen V. tituluari (Zigor Araubidea) ezarritakoaren ondoriozko zehapenak jartzea.

Zerrendatu berri ditugun ahalmenak aipamen hutsak dira, eta ez dute inolaz ere izaera mugatzailerik. Hartara, Erakundea gobernatu, administratu eta ordezkatzeko ahalmen zabalak dituen Gobernu Batzordearen esku daude Erakundearen interesak hobeki kudeatu eta defendatzeko egokitzat jotzen dituen gainerako ahalmen guztiak ere. Gobernu Batzordeak egoki ikusten dituen pertsona edo erakundeen esku utz ditzake eginkizun edo ahalmen horietako batzuk, betiere hobeki jorratzeko asmoarekin.

29. artikulua.

GOBERNU BATZORDEKO KIDEEN ERANTZUKIZUNA

Gobernu Batzordeko kideek arretaz beteko dute beren lana, eta maltzurkeriaz, ahalmenez abusatuz edo zabarkeriaz eragindako kalteengatik erantzule izango dira bazkideen aurrean. Kasu horietan, Batzar Nagusiak kendu egin ahal izango ditu haien postutik.

Funtziogabetu edo ordezkatu egin ahal izango dira, halaber, Batzordeak erresebatutzat jotzen dituen gaietan lanbide-sekretua hausten dutenean ere. Horretarako, Gobernu Batzordeak espedientea ireki beharko du aurrean.

30. artikulua.

LEHENDAKARIAREN AHALMENAK ETA ZEREGINAK

Gobernu Batzordeko lehendakaria Erakundearen goreneko ordezkaria izango da. Honako hauek izango dira beraren ahalmen eta zereginak:

- a) Gobernu Batzordearen izenean Erakundea ordezkatzeko, egiten diren egintza eta kontratu guztietan.
- b) Batzar Nagusiaren bilerak zuzentzea eta Gobernu Batzordea deitu eta zuzentzea; gai-zerrenda finkatzea ere bere ardura izango da.
- c) Lege- eta estatutu-arauek exijitzen dituzten formalitateak betetzen direla zaintzea.
- d) Bereziki gobernu-organismoen enparauko zereginak.

31. artikulua.

LEHENDAKARIORDEAREN AHALMENAK ETA ZEREGINAK

Gobernu Batzordeak ematen dizkion zereginenez gain, lehendakariaren ahalmenak eta zereginak bereganatuko ditu lehendakariordeak, hura ez dagoenean, gaixotu nahiz hil egin denean edo antzekoetan.

32. artikulua.	IDAZKARIAREN AHALMENAK ETA ZEREGINAK
-----------------------	---

Honako hauek dira idazkariaren eginkizunak:

- a) Batzar Nagusiaren eta Gobernu Batzordearen aktak idaztea.
- b) Lehendakariaren oniritziarekin ziurtagiriak egitea.
- c) Zuzenean lehendakariarenak ez diren gutun eta dokumentuak sinatzea.
- d) Batzar Nagusiaren eta Gobernu Batzordeen deialdiak idaztea.
- e) Erabakiak akta-liburuan idaztea eta haien gordailuzain izatea.

Idazkaria ez badago, lehendakariak izendatzen duen Gobernu Batzordeko kideak ordezkatuko du.

33. artikulua.	GOBERNU BATZORDEKO KIDEEN ZEREGINAK ETA AHALMENAK
-----------------------	--

Gobernu Batzordearen saioetara joateko eskubidea eta betebeharra dute kideek, eta Batzordeak ematen dizkien zereginak izango dituzte.

34. artikulua.	ESTATUTU SOZIALAK ETA GIZARTE AURREIKUSPENEN PLANAREN ARAUDIA ALDATZEKO PROZEDURA
-----------------------	--

Estatutu Sozialak aldatzeko, ezinbestekoa da Batzar Nagusiak ohiko edo aparteko bileran erabaki hori hartzea. Gainera, erabakia baliozkoa izateko, emandako botoen bi hereneko gehiengoa behar izango da.

Gizarte-aurreikuspeneko plan baten araudia aldatzeko, ordea, nahikoa da Erakundearen Gobernu Batzordeak gehiengo soilez hartutako erabakia.

35. artikulua.	GATAZKAK EBAZTEKO PROZEDURA
-----------------------	------------------------------------

Ohiko bazkideek edo/eta onuradunek Batzordearen edo Batzarraren erabakiren bati buruzko erreklamaziorik egin nahi izanez gero, Administrazioaren edo dagokion

jurisdikzioaren aurrean edozein jarduketa egin aurretik, Erakundearen Gobernu Batzordearen aurrean aurkeztu behar dute erreklamazioa.

Ohiko bazkideek edo/eta onuradunek, erreklamazioak aurkezteko, idazki bat igorri behar diote Erakundearen Gobernu Batzordeko lehendakariari, honako posta-helbide honetara:

IZARPENSION Enpleguko BGAE
Gobernu Batzordeko Lehendakariarentzat
Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua, zk. g.
20500 - Arrasate

Idazki horretan nahitaez agertu behar dira interesdunaren izen-abizenak, NANa edo pasaportearen zenbakia eta helbidea, eta zehatz eta argi azaldu beharko da Erakundeari adierazi nahi zaiona, eskatzen dena, bai eta erreklamazioa oinarritzeko eskura izan ditzakeen dokumentu-frogak ere.

Erakundearen aurrean erreklamazioa aurkezteko epe bat dago: urtebetekoa, erreklamazioa eragin duen gertakizuna edo gertakizunak izan diren egunetik aurrera. Aipaturiko epetik kanpo aurkezturiko erreklamazioak ez dira aintzat hartuko.

Erreklamazioa jaso ondoren, Erakundearen Gobernu Batzordeak egokitzat jotzen dituen ikerketak egin eta beharrezko dokumentu eta txostenak eskatuko ditu, eta erreklamazioa aurkeztu den egunetik aurrera bi hilabeteko epea izango du, gehienez, bera ebazteko, epe hori luzatzera behartzen duen aparteko gertaeraren bat jazotzen ez bada.

Gobernu Batzordeak emandako ebazpenarekin ados ez badago, ohiko bazkideak edo onuradunak Administrazioaren aurrean aurkeztu ahal izango du erreklamazioa, edota jurisdikzio eskudunaren aurrean aurkaratu.

Aurreko paragrafoetan adierazitakoa gorabehera, indarreko legedian aurreikusita dauden beste babes-sistema batzuk erabiltzeko aukera izango du ohiko bazkideak edo onuradunak, bereziki, kontsumoko arautegian araututako bitartekaritza eta arbitrajea.

36. artikulua.

ERABAKIAK AURKARATZEKO PROZEDURA

Aurkaratu egin daitezke legearen kontrakoak diren Batzar Nagusiaren erabakiak, Estatutuen aurka daudenak edota, bazkide baten edo batzuen edota hirugarrenen onerako, Erakundearen edo bazkide eta onuradunen interesak urratzen dituztenak.

Ezin izango da erabaki bat aurkaratu baldin eta baliogabetu egin bada edota baliotasunez beste erabaki batekin ordeztu bada.

V. TITULUA. DIZIPLINA ARAUBIDEA

37. artikulua.	ARAU-HAUSTEAK
-----------------------	----------------------

Ondoren aipatzen diren arau-haustek zehagarriak dira eta dagokien zigorra jasoko dute.

Arau-haustek arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke.

a) Arau-hauste arinak:

- Erakundeari helbide-aldaketa ez jakinaraztea.
- Deia jaso arren, bazkide izanik joan beharreko ekitaldietara eta, bereziki, Batzar Nagusietara ez joatea, justifikatutako arrazoirik izan gabe.
- Aurrez jakinarazi gabe kuotak ez ordaintzea.
- Estatutuaren edota araudiaren xedapenak nahiz funtzionamendu-arauak ez betetzea, barkaezinezko ezjakintasuna medio.

b) Arau-hauste larriak:

- Arau-hauste arinak behin eta berriro egitea.
- Emandako kargua ez onartzea edo dimisioa aurkeztea, Gobernu Batzordearen iritzian arrazoi justifikaturik gabe.
- Betetzen den kargua arduraz ez betetzea.
- Erakundeari ez jakinaraztea bazkidearen nahiz onuradunen egoeran izandako aldaketak, jaso beharreko prestazioetan eragin lezaketenak.
- Erakundearen izen ona kaltetzea edota haren izen ona eta sinesgarritasuna kalte lezaketen ekintzak egitea.
- Estatutuaren arauak ezartzea oztopatu edo zailtzen duen ekintzak edo ez-egiteak burutzea.

c) Arau-hauste oso larriak izango dira:

- Arau-hauste larriak behin eta berriro egitea.
- Gobernu-organoek hartutako erabakiak ez betetzea.
- Prestazioa bidegabe ordaintzea eragin duten dokumentuak faltsutzea edo ezkutatzea.

- Prestazioak edo Erakundearentzako gastuak eragiten dituen edonolako gaixotasun edo istripua simulatzea, eragitea edo larritzea, borondatez eta asmo txarrez.
- Erakundearen interesen kaltetan iruzur egitea edota borondatez horretarako baliabideak ematea.

38. artikulua.	ZEHAPENAK ETA PROZEDURA
-----------------------	--------------------------------

Aurreko artikuluan adierazi diren arau-hausteei ezartzekoak diren zehapenak hauek izan daitezke, oro har:

- Hutsegite arinengatik
 - Ahozko edo idatzizko ohartarazpena.
- Hutsegite larriengatik
 - Jendaurrean ohartaraztea, kasuan kasuko publizitate-maila emanez, zehazpena eredugarria izan dadin.
 - Gobernu-organoetan parte hartzeko eskubidea aldi baterako etetea.
- Hutsegite oso larriengatik
 - Jendaurrean ohartaraztea, kasuan kasuko publizitate-maila emanez, zehazpena eredugarria izan dadin.
 - Gobernu-organoetan parte hartzeko eskubidea behin betiko etetea.
 - Erakundetik kanporatzea.

Zehapenak prozedura honi jarraiki ezarriko dira:

- Erakundeak egintza zehagarria izan daitekeenaren berri izaten duenean, salaketa formal edo ofiziozkoaren bidez abiatuko da.
- Lehendakariak kargu-orria egingo du, eta ustezko arau-hausleari behar adinako bermez helaraziko dio. Horrek, kargu-orria jaso ondoren, 15 egun natural izango ditu idatziz erantzuteko.
- Bi idazkiak eta aurrekariak Gobernu Batzordearen esanetara jarriko dira. Egintza argitzeko beharrezkotzat jotzen dituen arakatzeen ondoren, dagokion ebazpena emango du, hurrengo bileran.

39. artikulua.	GOBERNU	BATZORDEAK	EZARRITAKO	ZEHAPENEN
AURKAKO ERREKURTSOAK				

Zigortutako bazkideek bide judizialera jotzeko aukera dute, Gobernu Batzordearen erabaki zehatzaileak errekurritzeko.

VI. TITULUA. DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA

40. artikulua.	ERAKUNDEA DESEGIN ETA LIKIDATZEA
-----------------------	---

Erakundea legediak eta gainerako araudiak ezarritako kausen ondorioz desegingo da.

Batzar Nagusiak erabakitzen duenean, likidazioaren —Estatutu hauetan finkatutako irizpideak kontuan hartuz egingo da— ondoriozko ondare garbia honela banatuko da:

- a) Lehenik eta behin, ez da Erakundearen aktiborik banatuko sortutako prestazioak egoki bermatzen ez diren bitartean.
- b) Zor horiek kitatu ondoren, gainerako ondarea honako ordena honen arabera esleituko da:
 - i) Bazkideei oraindik euren izenean gelditzen zaizkien eskubideen zenbatekoa itzuliko zaie.
 - ii) Soberakinik egonez gero, Batzar Nagusiak erabakitakoa ezarriko da.